# Bergara / 90

## PENTEKOSTES JAIAK



OPARI-GAIAK,

KIROL TROFEOAK - SWAROVSKI KRISTALEZKO IRUDIAK

ERLOJU ETA BITXITEGI TAILER PROPIOAK

BITXIEN TRANSFORMAZIOA

BIDEKURUTZETA 16 - Tfnoa: 76 23 94 - BERGARA

**BITXITEGIA ERLOJUTEGIA**

# ETXEBERRIA

**JOYERIA RELOJERIA**

ARTICULOS DE REGALO

TROFEOS DEPORTIVOS - FIGURAS CRISTAL SWAROVSKI

TALLERES PROPIOS DE RELOJERIA Y JOYERIA

TRANSFORMACION DE JOYAS

C/ BIDACRUCETA, N.º 16 - Tfno.: 76 23 94 - BERGARA



# Agurra

Guztia prest dago. Txapligua jaurtitzea baino ez da falta Pentekostes Jaiei hasiera eman eta herritarron artean poza eta alaitasuna zabaltzeko.

Udaleko Jai Batzordeak egin du ahaleginik asko programa zabal eta erakargarri bat eskaintzeko, herritar guztiok gozatu dezagun gure jai hunkigarri hauetan.

Baina, jakin badakigu, arrazoi bategatik edo bestegatik, guztiek ez dutela horretarako aukerarik izango. Zenbaitek ezin izango du gure artean egon, Espainiako Gobernuak, zentzugabekeria eta burugogorkeria hutsez, Euskal Herriaren erreibindikazioak onartu ez eta, ordainetan, gure herria erreprimitu egiten duelako.

Hamargarren urtea izango da aurten Iñaki Ibabe, Joxemari Etxaniz eta Josuren Murgizu, 20, 23 eta 24 urterekin preso hartu zituztenak, gure artean falta direla. Ezin ahaztu presondegietan, exilioan edo deportatuta dauden beste hainbat herritar ere: Panti, Zume, Joseba, Kanto, Angel, Maria Eugenia, Aska, Julian eta Sali. Beren kuadrilek urtero, jaietan, askatasun eta alaitasun ikur modura, jazten duten kamiseta jaztearekin egiten dute guztiek amets.

Marcos Perez ere ez da gure artean izango, Ejertzito Espainiarrean zerbitzera joateari uko egin ziolako, preso eraman bait zuten orain dela gutxi.

Pazkuetako jai zoriontsuak opatuaz bergarar guztioi zuzentzen dizuedan Agur honetan, derrigorrean gugandik urrun dauden herriko seme eta alaba horiek gogoratu nahi izan ditut bereziki, laster gure artean izatek nahia eta esperantza azalduaz.

Alkatek,

Jose Luis Elkoro Unamuno

# BERGARAKO UDALEKO JAI BATZORDEAK ANTOLATUTAKO EKINTZA ETA JAIEN EGITARAU OFIZIALA 1990

## EKAINAK 1, OSTIRALA

**Arratsaldeko 8etan:**

Martin Deunaren Enparantzan jaiei hasiera emango zaie etxaplegu jaurtiketa eta Bitorianatxoren jaitsierarekin.

Ondoren IKURRIÑA altxatuko da eta Udal Musika Bandak alaituta kalejira izango da.

**Arratsaldeko 8,15etan:**

Udaletxetik Patraka-Matraka hankaluzeak irtengo dira, "Txalaparta" fanfarearekin batera.

**Arratsaldeko 8,30etan:**

Beheko Estaziñoko barrakak irekitzea.

**Gaueko 11etan:**

Udal Pilotalekuan "Zazpiak Bat" euskal kanta jaialdia:

- Lapurditik, Pantxoa eta Peio
- Gipuzkoatik, Txanbela
- Zuberoatik, Bedasagar
- Bizkaitik, Gontzal Mendibil
- Behenafarroatik, Etxamendi eta Larralde.
- Nafarroatik, Enrike Zelaia
- Arabatik, Araba Dantza Taldea.

**Ordu berean:**

Martin Deunaren Enparantzan, dantzaldia, IZADI taldearekin.

## EKAINAK 2, LARUNBATA

**Goizeko 9etan:**

14 urtez azpikoentzako X. Marrazki eta Margo Lehiaketa, kanpo librekoa.

**Goizeko 10etan:**

Diana, Labegaraietatik Plazaraino, Antzuolako Udal Txistulari Bandarekin.

**Ordu berean:**

Diana, Igerilekuetatik Plazaraino, Antzuolako dultzaineroekin.

**Ordu berean:**

Diana, Bolutik Plazaraino Josu eta Jokin trikitilariekin.

**Eguerdiko 12etan:**

Plazan, bertsolariak:

- Koldo Egileor
- Jon Iñaki Izarzelaia
- Arantzazu Loidi

Gai-jartzaile: Pello Txintxurreta.

**Eguerdiko 12,30etan:**

Txistulari, dultzainero eta trikitilariek pieza pare bat joko dituzte Plazan, gero bazkal ordurarte herriko kaleak alaitzen joateko.

**Arratsaldeko 4etan:**

Udaletxeko Pleno Aretoan XAKE taldeak antolaturiko taldekako partida azkarren Euskadiko V. Txapelketa.

**Arratsaldeko 4,30etan:**

Udal Pilotalekuan "Pentekostes Feria"-ko pilota-partiduak.

**Arratsaldeko 5etan:**

Seminarioko jolaslekuan herri-kirolak. Gipuzkoako txapelketak:

- Txingak
- Soskor biltzea
- Zorroa eramatea
- Lastoa altxatzea
- Ingudea
- Kintopekoen harrijasotzea.

**Arratsaldeko 7etan:**

Bergarako Erraldoi eta Kirikien kalejira, Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin.

**Arratsaldeko 8etan:**

Martin Deunaren Enparantzan, Arrasateko Eraldoi, Kiliki eta Zaldikoen alardea, Arrasateko dultzaineroak alaituta.

**Gaueko 10etan:**

Martin Deunaren Enparantzan Zezen Suzkoa.

**Gaueko 11etan:**

Martin Deunaren Enparantzan dantzaldia, PIPERMIN taldearekin.

**Ordu berean:**

Bideberrin Rock-jaialdia, ondorengo talde hauekin:

- Eskoriatza
- Su Santidad
- Malaña

## EKAINAK 3, IGANDEA

**Goizeko 9etan:**

Udal Txistulari Bandarekin alborada.

Ordu berean, 1. eta 2. mailako afizionatuentzako txirrindulari-lasterketa, "LV. Pentekostes Saria".

Ibilbidea: BERGARA, OSINTXU, BERGARA, SAN PRUDENTZIO, OÑATI, Udana, LEGAZPIA, ZUMARRAGA, Deskarga, ANTZUOLA, BERGARA, OSINTXU, BERGARA, ANTZUOLA, Deskarga, ZUMARRAGA, LEGAZPIA, Udana, OÑATI, SAN PRUDENTZIO, BERGARA.

**Ordu berean:**

Taldekako xake-txapelketa, "Bergarako Hiria Saria".

**Goizeko 11etan:**

San Pedro Apostoluaren Elizan Meza Nagusia.

**Goizeko 11,30etan:**

Martin Deunaren Enparantzan haurrentzako Euskadiko dantza askatu Txapelketako eliminatoriak. Lehenengo 10 bikoteak klasifikatuko dira.

**Eguerdiko 12etan:**

V. Literatur Lehiaketako, Komik Lehiaketako eta drogak gehiegi kontsumitzearen arazoari buruzko Artikulu-Lehiaketako sariak banatzea.

**Ordu berean:**

2. solairuan "Bergara Hiria" VI. Argazki Lehiaketako lanen erakusketa.

**Eguerdiko 12,30etan:**

Novedades Aretoan Udal Musika Bandaren kontzertua.

| | | |
|---|---|---|
| - «1812» | Obertura | *P. Tchaikosky* |
| - «Suiti provencale» | | *J. Van der Roost* |
| - «Mendia eta itsasoa» | Preludio Sinfonikoa | *Migel Glez. Bastida.* |
| - «Sophisticated Ladies» | Selekzioa | *Duke Ellington.* |

*Zuzendaria: Alfredo Glez. Chirlaque*

**Arratsaldeko 4,30etan:**

Udal Pilotalekuan "Pentekostes Feria"-ko pilota-partiduak.

**Arratsaldeko 6etan:**

14 urtez azpiko bikoteetzako Euskadiko XIII. dantza askatu Txapelketa, Martin Deunaren Enparantza.

**Arratsaldeko 8etan:**

Martin Deunaren Enparantzan, Musika Eskolako fanfarrearen irteera, KUKUMA taldeko hankaluzeekin batera.

**Gaueko 10etan:**

Frontoiko Plazan EKEKEI antzerki taldeak "Ni naiz Kapintan Pilotu" lana eskainiko du.

**Gaueko 11etan:**

Espoloian dantza lotua, TARANTELA orkestarekin.

**Ordu berean:**

Martin Deunaren Enparantzan dantzaldia BERAKATZ BAND taldearekin.

**Ordu berean:**

Bideberrin Rock Jaialdia, ondorengo taldeekin:

- Hirms (Alemaniako)
- SPOCK
- HUGH

## EKAINAK 4, ASTELEHENA

HAURREN EGUNA

**Goizeko 9etan:**

Sokamuturra: Ohizko Ibilbidea.

**Goizeko 11,30etan:**

Seminarioko Patioan haurrentzako jolas-parkea: Carr-ak gaztelu puzgarriak, abiadura azkarreko trena. (Iraupena: bi ordu terdi).

Ordu berean, Udal Musika Bandarekin kalejira.

**Eguerdiko 12,30etan:**

Udal Musika Bandaren Kontzertua, Espoloian.

| | | |
|---|---|---|
| - «Bergarako Musika Eskola» | Martxa | *Alfredo Glez. Chirlaque* |
| - «La Italiana en Argel» | Obertura | *G. Rossini.* |
| - «Agua, azucarillos y aguardiente» | Selekzioa | *F. Chueca.* |
| - «Cake-Walk Phantasy» | | *P. Milray* |

*Zuzendaria: Alfredo Glez. Chirlaque.*

**Eguerdiko ordubietan:**

Eskolarteko txapelketetako sariak ematea.

**Arratsaldeko 4etan:**

Seminarioko Patioan jarritako haurrentzako jolas parteko jolasen jarraipena. Iraupena: bi ordu t'erdi.

**Arratsaldeko 4,30etan:**

Udal Pilotalekuan "Pentekostes Feria"-ko pilota partiduak.

**Arratsaldeko 5etan:**

Martin Deunaren Enparantzan herri-festa, "Los Incansables" txarangak alaituta.

**Arratsaldeko 6,15etan:**

"Zanko Tranko" taldeko hankaluzeen irteera, "Los Incansables" txarangarekin batera.

**Arratsaldeko 7etan:**

"Trapu Zaharra" antzerki taldearen emanaldia. Lana: "EROA" Frontoi ondoko plazan.

**Arratsaldeko 8etan:**

Haurrentzako dantzaldia, "Ortzadar" taldearekin. Haurren partehartzea bultzatzeko begirale talde bat izango da.

**Gaueko 11etan:**

Espoloian dantza lotua, "Zarabanda" taldearekin.

San Martinen dantzaldia "Lisker" taldearekin.

Bideberrin Rock Jaialdia, ondorengo taldeekin:

- "Julio Kageta"
- "Zaztada"
- "Pikutara"

Egun osoan zehar "Los Incansables" txarangak herriko kaleak alaituko ditu.

Goizeko 10etatik 3arratsaldeko arte barraketako bidaiak 25 pta. izango dira 14 urtez azpikoentzat eta baita asteazkenean ere arratsaldeko 4retatik gaueko 9etara ere.

## EKAINAK 5, ASTEARTEA

KUADRILEN EGUNA

**Goizeko 9etan:**

Sokamuturra: Ohizko Lekuetan.

**Goizeko 10etan:**

San Juanen, herritarrentzako Plater Tiraketa.

**Goizeko 10,30etan:**

Martin Deunaren Enparantzan, salda eta txorixoa, bildutakoentzat.

**Goizeko 11etan:**

Koadrilarteko herri-kirol jaialdia, 18 urtez gorakoentzat.

| | | |
|---|---|---|
| Sokatira | 6 partehartzaile | |
| Zaku-karrera | 2 " | (Erreleboka) |
| Txingak | 1 " | |
| Karretila | 2 " | (Txandaka) |
| Kaxhara-jokua | 1 " | |

Talde irabazlearentzako saria: Antxoninean afaria, 20.000 ptatan baloratua.

Izenematea Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan maiatzaren 31rarte.

**Eguerdiko ordubatetan:**

Aranzaki Ikastolako dantzarien eta Xamatz dantzataldearen saioa.

**Arratsaldeko 2,30etan:**

Martin Deunaren Enparantzan herri-bazkaria.

**Arratsaldeko 4,30etan:**

Udal Pilotalekuan "Pentekostes Feria"-ko pilota-partiduak.

**Arratsaldeko 6,30etan:**

Martin Deunaren Enparantzan herri jaialdia "Los Incansables" txarangak alaituta.

**Arratsaldeko 8etan:**

EGUZKIk antolatuta, Estaziñoko zubitik Santa Marinak zubiraino, baltsa lasterketa.

- 1. Saria: .................................. 15.000 pta.
- Baltsarik orijinalenarentzat: ...... 15.000 pta.

**Gaueko 11etan:**

Martin Deunaren Enparantzan dantzaldia "EGAN" taldearekin.

**Gaueko 12etan:**

Martin Deunaren Enparantzan elkartzea. Bitorianatxoren igoera. Egun osoan zehar bi trikitilari-bikotek eta "Los Incansables" txarangak herriko kaleak alaituko dituzte.

OHARRA: Jaiak irauten duten bitartean AEK-k Irizar Jauregiaren lurretan bolatoki bat izango du. Zaletuek txapelketak izango dituzte egunero ostiraletik asteartera.

# JAIETARAKO KIROL-PROGRAMA

## MAIATZAK 26, LARUNBATA

**Gaueko 10,30etan:**

Herriarteko Pilota-Txapelketa. Final-laurdenak BERGARA-AZKOITIA.

## EKAINAK 1, OSTIRALA

**Arratsaldeko 7etan:**

Agorrosingo Futbol Zelaian, Jubenil mailako futbol partidua: BERGARA, K. E. DONOSTIAKO ANTIGUOKO.

## EKAINAK 2, LARUNBATA

**Goizeko 9etan:**

Ipintzako Futbol Zelaian Alebinen finala.

**Goizeko 10,30etan:**

Agorrosingo Pistetan benjaminentzako atletismo-lehiaketa.

**Goizeko 11etan:**

Zabalotegiko Dorrean, Zakekoen lokalean XIV. Eskolarteko xake-torneoa.

**Eguerdiko 12etan:**

Agorrosingo pistetan infantil, kadete eta juniorrentzako atletismo-probak.

## EKAINAK 3, IGANDEA

**Goizeko 10etan:**

E.P.K.A. Karateko Rankina Labegarietako Polikoroldegian.

## EKAINAK 4, ASTELEHENA

**Goizeko 10,30etan:**

Martin Deunaren Enparantzan benjaminentzako futbitoko finala.

**Goizeko 11etan:**

San Martin de Agirre Ikastetxean benjaminen saskibaloi txapelketa.

**Goizeko 11,30etan:**
Martin Deunaren Enparantzan benjaminen eskubaloiko finalak.

**Eguerdiko 12,30etan:**
Martin Deunaren Enparantzan, alebinen futbitoko finala.

**Eguerdiko 1,30etan:**
Martin Deunaren Enparantzan, infantilen futbitoko finala.






GAMAK *ELEMENTOS INFORMATICOS*



## EQUIPOS

- **ORDENADORES:**
  XT, AT 286, AT 386
- **IMPRESORAS:**
  AGUJAS, LASER, TERMICAS
- PLOTTER: DIN A4, DIN A3, DIN AØ
- CONMUTADOR AUTOMATICO FAX-TELEFONO
- FAX

## APLICACIONES

- GESTION COMERCIAL INTEGRADA CON CONTABILIDAD
- CONTABILIDAD
- NOMINAS
- FACTURACION
- ALMACEN
- BUFETE DE ABOGADOS
- ADMINISTRACION DE FINCAS
- DISEÑO ASISTIDO POR ORDENADOR

C/ ARTZAMENDI, 1
TFNO. 76 56 85 - FAX 76 55 97
**20570 BERGARA (Guipúzcoa)**


JOSU FARMAKO
va de juerga
DESPUES DE "ESTUDIAR" EN BILBO, JOSU VUELVE PA LAS FIESTAS.
VIERNES, 19 h.
¡VAYA! EL PESAO ESTE
YA ESTOY AQUI TIOS!!
PLAF
24h
SNIF SNIF
SABADO, 7h
SPLOCH
SPLOCH
SPLOCH
17h
23h
PIRULAS
DOMINGO, 8h


24h.
CAPULLO
PSSSSS
PSSS
¡GUARRO!
PLOCH
PLOCH
PLOCH
LUNES
MARTES
SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF SNIF
MIERCOLES 8h
HI, HI, HI
KAIKO AITA
12h
RIIIIIING
HI, HI, HI
KAIKO CAPULLO
DESPUES DE HACER EL IMBECIL DE MANERA IMPRESENTABLE, JOSU VUELVE A BILBO.
¡EPA JOSU. ¿QUE TAL LAS FIESTAS?
NO SE, NO ME HE ENTERAO ¿QUE FIESTAS?
OXIGENO
CRI CRI CRI

## GURE LEKU-IZENEN ESANAHIA

Denoi gustatzen zaigu gure herriaren edo etxearen etimologia ezagutzea, baina aitortu beharra dago, beti ez dela erreza hauen esanahia jakitea. Lehenengo lana izen zaharra zein den ikertzea izaten da. Izan ere izen asko laburtuta eta itxuraldatuta esaten bait da gaur. Zeinek pentsatuko luke, besterik gabe, *"Elkoarte"*ren atzean *"Elkorobarrutia"* dagoela, edo eta *"Usasti"*ren atzean *"Oruesagasti"*?

Izen askoren esanahia begibistakoa izaten da: beste askorena, hain nabarmena izan ez arren, asma daiteke, eta beste askorena ia asma ezina da, izen hauen erabilera arrunta aspaldi galdua dagoelako. Urrin joan barik, zer esan nahi du *"Bergara"*k?

Etimologia zailekoa da. *"Gara"*k, normalean, leku altua esan nahi du, baina Bergara ez dago leku altuan. Edo (beheren-gara) izango da, beheren, barrenen dagoen altu-unea? Auskalo.

Luis Mitxelena-ren "Apellidos Vascos", L. M. Mujika-ren "Legazpiko eta Bergarako toponimia" eta Justo Garate-ren zenbait lanen laguntzaz, Bergarako toponimo batzuen esanahia azaltzen ausartu naiz, hanka behin eta berriz sartzeko arriskuarekin bada ere. Auzo eta baserri izenetara mugatuko naiz, eta hauek ere ez ditugu denak ikusiko, bestela luzeegi joko bait luke.

**Atzizki batzuk sarri agertzen dira:**

Izenak adierazten duen gauza edo gauzak daudela:

*-aga*: *Larrañaga, Errotiaga, Zurraga.*

*-di, -ti*: landareekin: *Okandi, Amezti...*, eta gauzekin: *Loidi, Aierdi*

*-eta*: *Aritzeta, Olañeta...*

Zerbait ugari dagoela:

*-tsu*: *Keixatsu, Askatsu, Albitxu*

*-tza*: *Lapatza, Ondartza...*

Eta beste hauek:

*-egi*: mendi muinoa, gaintxoa: *Elorregi, Arregi...*
Batzuetan, *-tegi, -degi* = txabola, etxe, e-a: *Billotegi, Jauregi*

*-ibar*: errekondoko lautada: *Askasibar, Aibar...*

*-ano*: Terrenoa, lurra. Aurrean, normalean, lurjabearen izena joan ohi da: *Marindano* (Marino-ren (?) lurra), *Amatiano* (Amatus edo Amadeus (?) delako baten lurra), *Garitano* (?), *Lamariano* (?).

**Auzo izenak:**

*Agarre* (Agirre-ren aldaera. Leku agiria, bistan dagoena).
Baserriak: Agarre (2), *Agarregoikua, Agarrebeña, Agarrezeziaga* (*Zeziaga* = zezen-aga), *Agarretxo...*
*Izagirre* (Izarre, Osintxun, (aize-agirre, izan daiteke, haize-lekua).

*Aldai* ("ladera" izan daiteke. Aldatz, aldapa, aldar, izenekin zerikusia du).

*Angiozar* (angio = hesitutako, itxituraz inguratutako zelaia. Hortik, *Angua*)

*Aranerreka* (aran = "valle" eta, erreka)

*Aritzeta* (aritz = "roble" eta -eta)
*Aristizabal, Arizabaleta, Arizti...*

*Azkarruntz* (azkar = "arce", arbola ezaguna, eta -untz (?)).
*Askasibar, Askatsu* (Azkar-tsu), *Azkargorta* (gorta = ukuilua, txabola)

*Basalgo* (baso-tik, -algo (?)).

*Elorregi* (elorri = "espino", eta -egi).

*Elosu* (elorri-tsu).
*Elortza, Elormendi...*

*Mekolalde* (beharbada, Eneko (izena) eta -ola-alde).

*Muinondo* (muino = mendixka, seguruena).

*Osintxu* (osin = ibaiko potzu haundia, eta -tsu). *Osingain, Agorrosin* (*Agirre-osin*, dokumentu zaharrek diotenez), *Beosin...*

*Ubera* (ibia, erreka erraz zeharkatu daitekeen tokia, "vado").

**Baserri Izenak:**

**1.- Landare izenetatik sortuak.**

*Albitxu* (albitz = "heno", bedar arrunt bat, eta -tsu).

*Altzerreka* (altz = "aliso"), *Altzuaran...*

*Amezti* (ametz = aritz mota bat, "Quercus Pyrenaicus"), *Ametzazpi, Ametzelaga...*

*Artiz* (arte-tik "encina", beharbada. Edo ardi-tik. (?)

*Gaztandola* (gaztaina-ola, gaztainaz egindako txabola).

*Galartza* (galar = berez igartutako arbolak dauden lekua), *Galarraga...*

*Idarraga* (idar = "guisante", edo illar, iñar = "brezo")

*Kostei* (Gorostegi), *Kostola* (Gorostola); (gorosti = "acebo").

*Iñarra* (iñar = "brezo").
*Isasi, Itxasmendi* (isats = "retama", lore horiko sastraka, eskobak eta egiteko erabili izan dena).
*Itsuskitza* (itsuski = iñarra, killarra, "brezo").
*Irazabal* (ira = garo, "helecho". Garosail zabala, alegia).
*Irabien* (ira-eban, beharbada, ira ebakitako lekua).
*Lapatza* (lapa = erropatan pega-pega egiten den lorea duen landarea, "bardana").
*Larrarte* (larra artea, arantza artea).
*Lizarralde* (lizar = "fresno", eta -alde = -ondo).
*Okandi* (okaranak, aranak dauden lekua).
*Pagaldai* (pago-aldai), *Pagola*...
*Sagasta, Sagastizabal* (Saizabal) (sagar-etik).
*Untzueta* (untz = "hiedra").
*Zumaketa* (zume = "mimbre").

Badira beste batzuk orokorragoak:

*Basozabal, Oxanguren* (oihan-guren), *Txara* (berez sortutako basoa).
*Zuazketa* (zuhaitz-etik), *Zupide* (zur-bide, egur-bide, alegia).
*Zurraga* (zura, egurra dagoen lekua).

**2.- Baserria non dagoen, zein lekutan kokatzen den adierazten dute beste izen batzuk.**

*Amillaga* (amildegia = "precipicio").
*Arregi* (arri-egi), *Arbulu* = arri-buru), *Arzubi* (arri-zuri, eta ez -zubi, dirudienez).
*Atxuriondo* (aitz-zuri-ondo).
*Barrena, Barrenetxe* (barrenen, beheren dagoena). *Goienetxe, Golonetxe* (goien dagoena), *Altuna* (altu-une).
*Egia* (ikus goian), *Egizabal, Egileor*...
*Egino* (-no, diminutiboa, -ño).
*Euzkitza* (eguzki-tik), *Eguzkialde*...
*Idurixo* (Iduri = ikatza egiterakoan sortzen den sutako hautsa).
*Larrañaga* (larraña = "era", garia joten den lekua).
*Lasarte* (lats = errekatxoa, bi errekatxoren artean dagoen etxea), Ugarte (ur-arte, esanahi berdina), *Laspiur* (lats-bihur).
*Madura* (errekondoko lur laua eta emankorra. Latinetik dator).
*Munabe* (muna = muino, tontor, eta -be), *Unamuno* (unai = behizaina, eta -muino).

*Orbe*: (orue = "solar"), *Oruesagasti, Oregi* (orue-egi).
*Zabale* (leku zabala), *Zabaleta, Zabaldo*.
*Zulueta* (zulo lekua).

**3.- Eraikuntzak, etxeak.**

*Benta, Bentoste* (benta = ostatua).
*Billotegi* (billots-tegi, seguruenez).
*Bolu*, (errota, latinezko "molinum"etik), *Bolintxo, Goenbolu*...
*Etxeberri, Etxetxo, Abeletxe*...
*Gaztelu*.
*Jauregi* (jaun-degi, jauna bizi den lekua).
*Mostei* (Monasterio-bide).
*Ola* (batzutan "ferreria", baina gehienetan txabola, "cabaña"), *Ibarrola, Kostola, Olañeta* (-ño, diminutiboa, eta -eta, ziurrenik). *Artolazabal* (ardi-ola-zabal).
*Zubiurruti, Zubikua*...

**4.- Jabearen izenetik sortuak.**

*Beltxorrenekua, Berrandona, Domiñena, Jaunzuriena, Lopekua, Migelena, Perulde*..., eta beharbada, *Amuskibar* (Amusko izeneko batena).

Hona, bada, duda-baso baten barruan izen mordo baten esanahia ei dena. Hala ere asko dira esanahi ilunekoak. Hemen doaz hamar baserri izen (eta apelidu ezagun) etimologia zailekoak:

*Belastegi* (bele-tik = "cuervo", edo eta belatz = belardi-tik. Bigarrenak posibilitate gehiago).
*Beiztegi* (behi-tegi = Behi -txabola (?)).
*Elkoro* (elge = lur landua, eta -koro, -korona = "corona", leku borobila) (?).
*Gallastegi* (galar-egi (?). Ikus goian *Galartza*).
*Gantxegi* (gain-txo-egi, mendi-muinoa edo) (?)
*Garitano* (-ano = lursaila). Hiru hipotesi:

1.- gari = "trigo"
2.- garai = leku altua
3.- Galindo = pertsona izena (Garinoain-en bezala).

*Lamarain* (lamin-aran ?), *Lamariano* (berdina, edo Amatiano, Marindano bezalako zerbait).
*Lonbide* (lor-bide = "camino de acarreo", plano inclinado por el que

se baja la leña del monte", Azkuek dionez) (?).
Narbaiza (esanahi zailekoa; nabar = "pardo", "naba" = vertiente (?).

Etimologia kontu hauetan erraza da hanka sartzea.Bergarako toponimoen liburuan, esate baterako, *Iraburu* (ira = garo)tik datorrela dio, ia seguru (iri-buru)tik datorkeenean, baserri hori Bergarako hiriaren buruan, gainean bait dago. *Uabide*, (ur-bide) dela, *Oruebide* denean, *Usasti* (isasti = "retamal") dela, *Oruesagasti* denean,edo *Bonbulu* (bolunburu) dela, *Goenbolu* denean. Lantxo honetan ere izango da labankadarik, baina badakit aurrez badudala zuen barkazioa.

Juan Martin Elexpuru.






# LA CAJA COMPARTE TUS FIESTAS

La Caja de Guipúzcoa vive las fiestas junto a ti.
Participando en la alegría de estos días tan especiales.
Disfrutando del ambiente.
Por tradición.
Algo que, como buenos guipuzcoanos, todos llevamos muy dentro.
¡Felices Fiestas!

Gipuzkoako Kutxak zurekin bizi nahi ditu jaiak.
Egun berezi-berezi hauetako alaitasun-giroan parte hartu.
Giro horretaz gozatu.
Tradizioarengatik.
Gipuzkoar jator garenez, guztiok barrenean daramagun zerbait bait da hori.
Festa Zoriontsuak!

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

©-Publis

# Saludo

*Todo preparado a falta del chupinazo. Su disparo provocará el alborozo general dando comienzo a las fiestas de Pentecostes.*

*La Comisión Municipal de Festejos se ha esmerado para brindarnos un programa extenso y variado donde por activa y por pasiva, encontraremos estímulos para el deleite.*

*Pero no todos, por diversas razones, serán muchos los bergareses privados de esta oportunidad. Algunos absurdamente, por el empecinamiento del Gobierno de España en rechazar las justas reivindicaciones de Euskal-Herria y ejercitar la represión.*

*Por décimo año consecutivo faltarán Iñaki Ibabe, Josemari Etxaniz y Josuren Murgizu, encarcelados con 22, 23 y 24 años respectivamente, que junto con Panti, Zume, Joseba, Kanto, Angel, Maria Eugenia, Aska, Julián y Sali, también presos, exiliados y deportados, suspiran por vestir la camiseta de la cuadrilla que sus compañeros exhiben cada año como símbolo y expresión de libertad y alegría.*

*También faltará Marcos Pérez, recientemente encarcelado por su negativa a servir en el Ejército Español.*

*En este saludo especial que con motivo de las Pascuas de Pentecostés dirijo a todos los Bergareses, deseándoles unas agradables fiestas, recuerdo particularmente a estos obligados ausentes con el deseo y esperanza de verles pronto incorporados a nuestra Sociedad.*

*El Alcalde,*

*Jose Luis Elkoro Unamuno*

# PROGRAMA OFICIAL DE LOS ACTOS Y FIESTAS ORGANIZADOS POR LA COMISION DE FESTEJOS DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BERGARA 1990

## VIERNES, 1 DE JUNIO

**7 de la tarde:**

En el campo de Agorrosin, interesante partido de fútbol Juvenil entre el C. D. BERGARA-ANTIGUOKO de San Sebastián.

**8 de la tarde:**

Comienzo de las fiestas en la plaza San Martin de Agirre con el lanzamiento del txaflero y bajada de Bitorianatxo, amenizada por la Banda Municipal.

A continuación se procederá a la izada de la IKURRIÑA y al pasacalle amenizado por la Banda Municipal de Música.

**8,15 de la tarde:**

Salida del grupo de Zankudos Patraka-Matraka desde el Ayuntamiento con la fanfarria Txalaparta.

**8,30 de la tarde:**

Apertura de la feria de atracciones situada en la estación de abajo.

**11 de la noche:**

En el frontón municipal gran festival de la canción vasca "Zazpirak-Bat" con la actuación de:

- Lapurdi - Pantxoa eta Peio
- Gipuzkoa - Txanbela
- Zuberoa - Bedasagar
- Bizkaia - Gontzal Mendibil
- Bexanafarroa - Etxamendi eta Larralde.
- Nafarroa - Enrike Zelaia
- Araba - Araba Dantza Taldea.

**A la misma hora:**

En la Plaza San Martin de Agirre verbena a cargo del grupo "IZADI".

## SABADO, 2 DE JUNIO

**9 de la mañana:**

X concurso infantil de dibujo y pintura al aire libre para menores de 14 años.

**10 de la mañana:**

Diana desde Altos Hornos hasta la plaza por la Banda Municipal de Txistularis de Antzuola.

**A la misma hora:**

Diana desde las piscinas hasta la plaza a cargo de los dulzaineros de Antzuola.

**A la misma hora:**

Diana desde Bolu hasta la plaza a cargo de los trikitilaris Iosu eta Iokin.

**12 del mediodía:**

Actuación en el tablado de la plaza de los bersolaris:

- Koldo Egileor
- Jon Iñaki Izarzelaia
- Arantzazu Loidi

Gai-jartzaile: Pello Txintxurreta.

**12,30 del mediodía:**

Tanto los txistularis, como los dulzaineros y trikitilaris nos interpretarán un par de piezas encima del tablado para luego distribuirse amenizando las calles del pueblo hasta la hora de comer.

**4 de la tarde:**

En el Salón de Plenos del Ayuntamiento, V Campeonato de Euskadi de partidas rápidas por equipos organizado por "XAKE" taldea.

**4,30 de la tarde:**

En el Frontón Municipal atractivos partidos de pelota "Feria de Pentecostés".

**5 de la tarde:**

En el patio del seminario Herri Kirolak, Campeonatos de Gipuzkoa en las siguientes modalidades:

- Txingak
- Soskor biltzea
- Sakua eramatea
- Lastoa altxatzea
- Ingudea
- Kintopeko harrijasotzea.

**7 de la tarde:**

Paseo de los gigantes y kilikis de Bergara con el acompañamiento de la Banda Municipal de Txistularis.

**8 de la tarde:**

En la Plaza San Martín alarde de los gigantes, kilikis y zaldikos de Arrasate acompañados por la banda de dulzaineros de dicha localidad.

**10 de la noche:**

Toro de fuego en la plaza de San Martín.

**11 de la noche:**

En la plaza de San Martín baile amenizado por el grupo PIPERMIN.

**A la misma hora:**

Festival ROCK en Bideberri con la actuación de los siguientes grupos:

- Eskoriatza
- Su Santidad
- Malaña

## DOMINGO, 3 DE JUNIO

**9 de la mañana:**

Alborada por la Banda Municipal de Txistularis.

**A la misma hora:**

Salida de la prueba ciclista para aficionados de 1.ª y 2.ª "LV Gran Premio Pentecostés" con el siguiente recorrido:

BERGARA, OSINTXU, BERGARA, SAN PRUDENTZIO, OÑATI, Udana, LEGAZPIA, ZUMARRAGA, Deskarga, ANTZUOLA, BERGARA, OSINTXU, BERGARA, ANTZUOLA, Deskarga, ZUMARRAGA, LEGAZPIA, Udana, OÑATI, SAN PRUDENTZIO, BERGARA.

**A la misma hora:**

Campeonatos de Ajedrez por equipos. "Gran Premio Villa de Bergara".

**11 de la mañana:**

En la Iglesia Parroquial de San Pedro Apóstol Misa Solemne de Pentecostés.

**11,30 de la mañana:**

En la Plaza de San Martín, eliminatorias del XXIII Campeonato de Euskadi de baile al suelto por parejas. Se clasificarán las 10 primeras parejas.

**12 del mediodía:**

Entrega de premios a los vencedores de V concurso de literatura en Euskera, a los vencedores del concurso de COMICS en Euskera, a los vencedores del concurso de artículos escritos referentes a la problemática del uso abusivo de drogas.

**A la misma hora:**

Apertura en la 2.ª planta de la Casa de Cultura, de la exposición "VI Argazki Lehiaketa Bergara Hiria".

**12,30 del mediodía:**

Concierto de la Banda Municipal de Música en el Salón Novedades con el siguiente programa:

- «1812» ................................ Obertura Solemne .......... *P. Tchaikosky*
- «Suiti provencale» ........................................................ *J. Van der Roost*
- «Mendia eta itxasoa» .............. Preludio Sinfónico .......... *Miguel Glez. Bastida.*
- «Sophisticated Ladies» .......... Selección ....................... *Duke Ellington.*

*Director: Alfredo Glez. Chirlaque*

**4,30 de la tarde:**

En el Frontón Municipal atractivos partidos de pelota "Feria de Pentecostés".

**6 de la tarde:**

En la Plaza de San Martin final del XIII Campeonato de Euskadi de baile al suelto por parejas.

**8 de la tarde:**

En la Plaza San Martín salida de la fanfarrie de Músika Eskola junto a los zankudos de KUKUMA.

**10 de la noche:**

En la plaza del frontón el grupo de teatro EKEKEI representará la obra "Ni naiz kapitan Pillotu".

**11 de la noche:**

Baile "AGARRAU" con la orquesta "Tarantela" en el Espolón.

**A la misma hora:**

Baile a cargo de "Berakatz Band" en la Plaza San Martin"

**A la misma hora:**

Festival Rock en Bideberri con los siguientes grupos:

- Hirms (de Alemania)
- SPOCK
- HUGH

## LUNES, 4 DE JUNIO

DIA DEL NIÑO

**10 de la mañana:**

Sokamuturra con el recorrido tradicional.

**11,30 de la mañana:**

Parque infantil en el patio del seminario con coches Cars, Castillo hinchable y el tren de alta velocidad (duración 2 horas, 30 minutos).

**A la misma hora:**

Pasacalle de la Banda Municipal de Música.

**12,30 del mediodía:**

Concierto de la Banda Municipal de Música en el Espolón con el siguiente programa:

- «Bergarako Musika Eskola» .......... Martxa .................... *Alfredo Glez. Chirlaque*
- «La Italiana en Argel» .................. Obertura ................ *G. Rossini.*
- «Agua, azucarillos y aguardiente» . Selección .............. *F. Chueca.*
- «Cake-Walk Phantasy» ................................................ *P. Milray*

*Director: Alfredo Glez. Chirlaque.*

**1 del mediodía:**

Entrega de trofeos de los campeonatos escolares.

**4 de la tarde:**

Continuación del parque infantil instalado en el patio del seminario (duración 2 horas, 30 minutos).

**4,30 de la tarde:**

En el frontón municipal atractivos partidos de pelota "Feria de Pentecostés".

**5 de la tarde:**

Festejo popular en la plaza San Martín amenizado por "Los Incansables".

**6,15 de la tarde:**

Salida de los zankudos "Zanko-Tranko junto a "Los Incansables".

**7 de la tarde:**

Actuación del grupo de teatro "Trapu Zaharra" interpretando la obra EROA en la plaza del Frontón.

**8 de la tarde:**

Verbena infantil a cargo del grupo "Ortzadar" con un equipo monitor para hacer participar a los pequeños.

**11 de la noche:**

Baile "AGARRAU" con la orquesta ZARABANDA en el Espolón.

**A la misma hora:**

En la Plaza San Martín baile con el conjunto LISKER.

**A la misma hora:**

Festival ROCK en Bideberri con los siguientes grupos:

- "Julio Kageta"
- "Zaztada"
- "Pikutara"

Durante todo el día la txaranga "Los Incansables" animará las calles de Bergara. Desde las 10 de la mañana hasta las 3 de la tarde los viajes en las barracas costarán 25 ptas. para los menores de 14 años al igual que el miércoles día 6 de 4 de la tarde a 9 de la noche.

## MARTES, 5 DE JUNIO

DIA DE LAS CUADRILLAS

**9 de la mañana:**

Sokamuturra con el recorrido habitual.

**10 de la mañana:**

En el Campo de Tiro de San Juan tiro al plato con carácter local.

**10,30 de la mañana:**

Caldo y txorizo en la Plaza San Martín para los asistentes.

**11 de la mañana:**

Juegos populares intercuadrillas para mayores de 18 años. Cada equipo estará integrado por 6 participantes, las pruebas serán:

| | | |
|---|---|---|
| Sokatira ............................... | 6 participantes | |
| Carrera de sacos ................... | 2 " | (Relevos) |
| Txingas ................................. | 1 " | |
| Carretilla ............................. | 2 " | (Cambiando) |
| Kaskara-jokua ....................... | 1 " | |

El premio para el equipo ganador será una cena en el Restaurante Antxoni valorada en 20.000 ptas.

Las inscripciones serán en la oficina del Servicio Deportivo Municipal hasta el día 31 de Mayo.

**1 del mediodía:**

Actuación de los dantzaris de la Ikastola Aranzadi y del grupo de danzas Xamatz.

**2,30 de la tarde:**

Comida popular en la Plaza San Martín.

**4,30 de la tarde:**

En el Frontón Municipal atractivos partidos de pelota "Feria de Pentecostés".

**6 de la tarde:**

Festejo popular en la plaza de San Martín amenizado por la charanga "Los Incansables".

**8 de la tarde:**

Carrera de balsas organizado por EGUZKI desde el puente de la estación al puente de Santa Marina con los siguientes premios:

- 1.er Clasificado ......................... 15.000 ptas.
- Originalidad ............................ 15.000 ptas.

**11 de la noche:**

Verbena a cargo del conjunto "EGAN" en la Plaza San Martín.

**12 de la noche:**

Concentración en la Plaza San Martín de Agirre procediéndose a la subida de Bitorianatxo.

Durante todo el día actuarán 2 parejas de afamados Trikitilaris y la txaranga "Los Incansables".

NOTA: Durante todas las fiestas A.E.K. tendrá instalado un bolatoki en los terrenos del palacio de Irizar. Los aficionados tendrán campeonatos todos los días de Viernes a Martes.

# PROGRAMA DEPORTIVO PARA FIESTAS

## SABADO, 26 DE MAYO

**10,30 de la noche:**

Festival de Pelota INTERPUEBLOS cuartos de final BERGARA-AZKOITIA.

## VIERNES, 1 DE JUNIO

**7 de la tarde:**

En el campo de Agorrosin, interesante partido de fútbol Juvenil entre el C.D. BERGARA-ANTIGUOKO de San Sebastián.

## SABADO, 2 DE JUNIO

**9 de la mañana:**

Final de fútbol alevín en el campo de fútbol de Ipintza.

**10,30 de la mañana:**

Atletismo para la categoría Benjamín en las Pistas de Agorrosin.

**11 de la mañana:**

XIV Torneo escolar de ajedrez en el local social de Ajedrez, Torre de Zabalotegi.

**12 del mediodía:**

Pruebas atléticas para las categorías de Infantiles, Kadetes y Juniors en las pistas de Agorrosin.

## DOMINGO, 3 DE JUNIO

**10 de la mañana:**

Rankin de karate moderno E.P.K. en el Polideportivo de Labegaraieta.

## LUNES, 4 DE JUNIO

**10,30 de la mañana:**

Final de Fútbol Sala para la categoría benjamín en la plaza de San Martín.

**11,30 de la mañana:**

Final de Balonmano para la categoría benjamín en la plaza San Martín.

**11 de la mañana:**

Final de Baloncesto para la categoría benjamín en el Colegio San Martín de Agirre.

**12,30 del mediodía:**

Final de Fútbol Sala en la categoría infantil en la plaza San Martín.

**1,30 del mediodía:**

Final de Fútbol Sala para la categoría alevín en la Plaza San Martín.



FESTA-GIROAN ERE

GURE HERRRIAREKIN GAUDE BETI

AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALA

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL

Imprenta Garbil. BERGARA